

JEUNESSE ET SPORTS

STAT-Info

Estatistika eta azterketa buletina

01-01 zk.

2001 Martxo

“Frantzia KIROLARIA”

«Kirol praktika 2000» inkestaren lehen emaitzak

2000. urteko uztailean, 15-75 urte arteko 36 milioi frantsesek jarduera fisikoak eta kirola egitea aitortzen zuten. Praktika horiek gutxi edo aski erregularrak dira, dedikazio handiago edo txikiagokoak. Hala, 26 milioi baino zertxobait gehiagok astean behin egiten dute kirola eta klub edo elkarteetako kide diren 10 milioen erdiak lehiaketetan parte hartu ohi du.

Uste izatekoa zenez, ibilketa, igeriketa eta ziklismoa dira maiztasun handienaz aipatzen diren jarduerak. Ondoren, footinga-, bola-jokoak eta gimnasia datoz.

Askotarikoak dira kirolarien xedeak: aisia, lehiaketa, osasuna. Orobat, hainbat dira ariketa lekuak: natura bera, hartarako prestaturiko gunek –doakoak edo ordaindu beharrekoak–, kalea, eta hori guztia klub edo elkarte bateko kide izanik edo ez.

Historia luze baten emaitza izanik, emakumeen kirola gizonen kirolaren oso desberdina da oraindik, hainbat aldetatik: aukeraturiko disziplinak, jardueren sendotasuna bizitzan zehar, ariketa lekuak edota are lehiaketetan parte hartzeko moldea ere –8 milioitik gora lehiaketarien artetik, %24 bakarrik dira emakumeak. Berriki emakumeei zabalduriko kirol jakin batzuek oso maskulinoak izaten jarraitzen dute oraindik: futboleak jokatzen duten 4,6 milioi pertsonetatik %8 besterik ez dira emakumeak.

Horiek dira Frantziako Gazteria eta Kirolak ministerioak (Ministère de la Jeunesse et des Sports, MJP) eta Kirol eta Heziketa Fisikorako Institutu Nazionalak (Institut National du Sport et de l'Education Physique, INSEP) 2000ko uztailean buruturiko «Kirol praktikak» inkestaren lehen emaitzak.

Askotariko praktika, askotariko neurketa

Gaur egun, 15-75 urte bitarteko ia 5,5 milioi frantsesek kirol lehiaketetan parte hartzen dute, klub edo elkarteren bateko kide direla. Nabarmendu beharra dago jarduera fisikoak eta kirola (JFK) deituko ditugunen praktikara hurbiltzeko era oso estua dela hori. Dena den, horien artean are gune murrizagoa bereiz genezake, hau da, goi mailako kirolariak, 6000 inguru, 5.921 zehazki, 2000ko uztailaren 15ean (ikus 7. orriko oharra).

Beste muturrean, urtean behin gutxienez –oporretan batez ere– jarduera fisikoa egiten dutela adierazten duten guztiak kontuan hartuz –beren baitarik hori adierazi ez baina bai inkestatzaileak behin eta berriro ekitean aitortzen dutenak barne–, 36 milioi «kirolari» baino gehiago zenbatzen dira, hau da, biztanleria osoaren %83 (ikus 1. taula). Hamar milioi pertsona noizean behin aritzen dira, hau da, astean behin baino gutxiagoko praktika (emaitza horiek ulertzeko ikus 8. orria). Egiten duten kirolaren arabera, batzuek ez dute horrenbeste beren burua kirolaritzat hartzen; esaterako, roller, wind-surf edo eskalada egiten dutenak; kasu horietan, maiz, inkestatzaileak behin eta berriro galdetu behar izan du informazioa lortzeko.

1. Taula 15-75 urte bitarteko biztanleriaren kirol praktikaren neurketa – 2000ko uztaila

Praktika motak	Milaka pertsonetan	15-75 urte bitartekoak (%)	Kirola egiten duten horietatik	
			Emakumeak (%)	15-30 urte bitartekoak (%)
Lehiaketa eta klub/elkarte barnean (1)	5449	12	24	48
Lehiaketa (1)	8289	19	24	50
Klub edo elkarte barnean (1)	10006	23	40	38
JFK bat praktikatzan du astean behin gutxienez (2)	26482	60	47	31
Horien artean, beren baitarik esandakoak	21046	48	43	34
JFK bat praktikatu du urtean behin (2)	36637	83	48	30
15-75 urte bitarteko biztanleria	44121	100	51	27

(1) Cf «Emaitzak ulertzeko» 8. orria

(2) Neurketak, JFK baten praktika inkestatzaileak berriro galdetu ondoren aitortu duten pertsonak ere hartzen ditu barnean

Iturria: MJS/INSEP inkesta 2000ko uztaila

Irurketa: 2000ko uztailean, 10 milioi pertsona klub edo elkarte bateko kideak dira, hau da, 15–75 urte bitarteko %23. Hamar milioi horietatik, %40 emakumeak dira eta %38 15–30 urte bitartekoak dira.

Azkenik, ohiko praktika –astean behingoa gutxienez– frantses inkestetan maiz agertzen den neurria dugu: bat-bateko eta berezko adierazpenen arabera, 15-75 urte arteko jendearen %48 kasu horretan egongo litzateke. Kirolari jarraiki horietatik, %63 astean behin baino gehiago aritzen da, eta %24 hiru aldiz gutxienez.

Agerikoa denez, gazte izateak faboratu egiten ditu jarduera fisikoak eta kirola: lehiaketetan parte hartzen duten pertsonen erdiak 15-30 urte bitartekoak dira. Baina erne, kirolari gazteak inkesta honetan kontuan harturikoak baino askoz gehiago dira; izan ere, kalkuluen arabera, 15 urtetik beherako gazteek kirol lizentzien %30 edo 40 bereganatzen dute. Inkesta honetan galdekatu 15-75 urte bitarteko biztanleak, beraz, lizentzia atera lezaketenen bi herenak dira; horietatik 8,5 milioi kirolari lizentzia bat edo gehiagoren jabe dira.

Kirol praktika federatua

Gazteria eta Kirolak ministerioak kirol federazioen artean urtero egin ohi duen kirol lizentzien zentsuak, federazio bakoitzak emandako lizentzia kopurua zenbatzea ahalbidetzen du, baina ez du kirol praktikari berari buruzko argibiderik ematen. Lizentzien eremuak adin guztiak hartzen ditu. Adibidez, judo eta karate federazioen lizentzia dutenen %68 eta %58, hurrenez hurren, 15 urtetik beherakoak dira, baina bola-jokoen federaziokoen %2 eta golfekoen %4 besterik ez dira kasu horretan.

Lizentziei buruzko daturik berrienak 1998koak dira: 14,5 milioi lizentzia, eta horietatik 10 milioi baino zerbait gehiago dira lehiaketetan parte hartzeko eskubidea ematen duten lizentziak. Lizentzien kopuru globala zenbatu daiteke, baina ez dakigu zein den lizentzia duten pertsonen kopuru osoa; definizioz, txikiagoa da, zeren eta pertsona batek lizentzia bat baino gehiago izan baitezake. 1999ko lizentziei buruzko emaitzak 2001eko maiatzean izango ditugu eskura; 2000. urteari buruzko zentsua 2001eko udaberrian egingo da.

Kirol praktikaren edozein adiera, gutxi edo aski zabala, kontuan harturik, emakumezko kirolarien kopurua beti ere gizonezkoena baino txikiagoa da, batez ere lehiaketaz ari bagara.

Nolako motibazioak, halako praktika mota?

Jarduera fisikoak eta kirola egitea, betebeharrekin baino areago motibazioekin loturik ageri da. Kezka horiek bi eratakoak dira: alde batetik, ongizatearen bilaketa, eta bestetik, familia eta adiskidetasun loturak berrestea. Lau kasutarik hiruretan, osasuna eta ariketaren premia agertzen dira jarduerak aukeratzeko jatorrian. Jarduerak dakarren plazerra da kirola egiteko eragingarrietan lehena (%89), gurasoen adibidetik (%22) edo eskola eta heziketa fisiko eta kirol ikastaroetatik (%21) urrun. Halako indibidualismo baten adierazpidea izanik ere, kirola gehienbat taldean (%81), familiako kideekin edo lagunekin, egiteak indargabetzen du alderdi hori, neurri handi batean.

Ariketa lekuek naturarekiko harreman-bilaketa ematen dute aditzera: jardueretatik %63 naturan berean gertatzen dira, %47 hartarako prestatuturiko lekuetan hala nola parkeak edo osasun ibilbideak, %34 kalean, beti ere ordaindu beharreko ekipamenduetan –pizinetan, adibidez– baino gehiago (%26). Etxe barneko praktikak edo kirol klub pribatu edo publikoetan gauzaturikoak ez dira horren ohikoak. Gainera, 15 urtetik beherakoak inkestaren alorretik kanpo geratzen direla kontuan harturik, argi geratzen da naturan bertan – maiz askotan kirolaren ekipamendu eta ohiko markoetatik kanpo– egiten diren jarduera fisiko eta kirolen arrakasta.

Kirolik hedatuenak: ibilketa, igeriketa, txirrindularitza

Jarduera fisikoez eta kirolez galdeturiko pertsona guztiek ohikoenak aipatu behar zituzten. Laginaren neurriak kontuan harturik, multzoak egin behar izan dira ukituriko jende taldeak egokiro aztertu ahal izateko. Halako baldintzetan, zenbait jarduera federazio jakin bati dagozkio modu esplizituan, hala nola tenisa edo futbola; beste batzuk, hala nola «arte martzialak», «ibilketa» edo «irrista kirolak» jarduera multzoak dira. Hartara, ohikoenak diren jarduera fisiko eta kirolen zerrenda finkatu ahal izan dugu. Hogeita hamaika «jarduera» horien buruan ibilketa, igeriketa eta txirrindularitza aurkitzen ditugu (4. orriko taula). Sailkapen horretan, futbola da lehen kirol antolatua, eta tenisa bigarrena. Hemeretzi jardueratan, «multzoak izan edo ez», milioitik gorako kirolzale kopurua ageri da (2. taula).

2. Taula Gehien deklaritzen diren jarduera fisikoak eta kirolak

Eremua: 15-75 urte bitarteko biztanleria – 2000ko uztaila

Aritzen direnen kopurua	JARDUERAK edo JARDUERA MULTZOAK (1)
10 milioitik gora	Ibilketa (20,9), Igeriketa (14,5), Ziklismoa (12,8)
6–7 milioi bitartean	Footing-a (6,6), Bola-jokoak (6,1), Gimnastika (6,1)
3,5–6 milioi bitartean	Eskia (5,3), Futbola (4,6), Tenisa (3,6)
2–3,5 milioi bitartean	Arrantza (3,1), Muskulazioa (2,6), Mahai tenisa (2,3)
1,5–2 milioi bitartean	Roller/Skate-a (1,9), Badminton-a (1,6)
1–1,5 milioi bitartean	Saskibaloia (1,4), Boleibola (1,2), Irristaketa ur/elur (1,2), Ehiza (1,1), Dantza (1,1)
0,7–1 milioi bitartean	Ekitazioa (0,93), Bela (0,89), Arte martzialak (0,78)
0,5–0,7 milioi bitartean	Eskalada (0,66), Golf-a (0,60), Eskubaloia (0,58), Atletismoa (0,52)

(1) Multzorik gora buruz ikus 4. taula

Iturria: MJS/INSEP inkesta 2000ko uztaila

Sailkapenak berretsi egiten du irrista kirolen ezarpena –roller/skate-a eta ur edo elurren gaineko irristaketa–, hiru milioi kirolzale biltzen baitituzte. Halaber, erraketa kirolen –tenisa, mahai tenisa, badminton, squash-a– onarpen zabalaz, ia 8 milioi pertsona, ohartzen gara, bai eta talde kirolek duten postu garaiaz ere. Bestalde, «elitista» samartzat hartu ohi diren zenbait kirolek – ekitazio, bela edo golf-a– kontuan hartzeko postua lortu dute. Orobat, zerrendak azaldu egiten digu lehiaketa izaeratik at dauden jardueren presentzia sendoa: ibilaldia, eskalada, irrista kirolak dira horren adibide. Azkenik, 80ko urteetan kirol berri batzuen –hala nola roller, surf, eskalada edo rafting-a– sarrera gorabehera, tradizionalagozat jotzen diren zenbait kirolen –futbol, tenis eta, oro har, talde kirolen– garrantzia ez da zalantzan jarri (2. taula).

Aisialdiko diziplinak edo dedikazio handiagokoak

Begien bistako arrazoiengatik, kirol jakin batzuk batez ere oporretan egitekoak dira: bela (oporretako praktika:%55), ur gezatako kirolak (%50), elurretako edo itsas irristaketa (%61), patinajea (%58) eta neguko kirolak (%64). Beste jarduera fisiko eta kirol batzuek dedikazio azkarra edo bizia eskatzen diote kirolzaleari, eta hori hainbat parametrotan neur daiteke: maiztasuna (dantza eta gimnastika lantzen dutenen %80 gutxienez astean behin aritzen dira), klub edo elkarte batekoa izatea (hori da arte martzialak praktikatzan dituztenen %71ren kasua), lehiaketan parte hartzea (atletismoa praktikatzan duten kirolarien %51k lehiaketan parte hartzen du). Amaitzeko, kirol batzuk atsedeneri loturik daudela ematen du; esaterako, mahai tenisean aritzen direla dioten %66k oporretan edo noizean behin egiten dutela adierazten dute. Kirol diziplinen unibertsoa aztertzerakoan, polo bi daudela esan liteke; jarraitasunak markaturikoa bata, dedikazio handikoa, lehiaketan parte hartzea, klub batekoa izatea edo praktikaren maiztasuna (rugbya, arte martzialak, eskubaloia) ezaugarriak dituen; eta aisialdiari eta atsedeneri lotuagoa bestea (eskia, bela, mahai tenisa) (3. taula).

3. Taula Kirol dedikazioa

Eremua: 15-75 urte bitarteko biztanleria – 2000ko uztaila

Jarduera edo jarduera multzoa (1)	ARITZEN DIRENEN EHUNEKOA		
	astean behin baino gehiago	klub edo elkarte bateko kideak	lehiaketa ofizialetan parte hartzen dute
Arte martzialak	58	71	39
Muskulazioa	52	51	22
Saskibaloia	44	50	39
Gimnastika	43	49	7
Rugby-a	41	73	63
Ibilketa	40	20	8
Ehiza	40	25	Ns
Borroka kirolak	33	41	26
Eskubaloia	33	64	53
Atletismoa	32	55	51
Footing-a	31	40	29
Futbola	31	51	41
Dantza	29	54	13
Ziklismoa	29	30	17

(1) Multzo horiei buruz ikus 4. taula

Iturria: MJS/INSEP inkesta 2000ko uztaila

21 milioi «ibiltari»

Inkesta honetan, galderak egiteko molde irekiak kirolaren, aisiaren eta mantenimendu fisikoaren mugetan dauden jarduera fisiko batzuk agertarazi ditu, eta gainera ez hain seinalaturiko kirolari batzuk azalerazi ditu, hala nola adineko pertsonak.


Ibilketak garbi erakusten du inkesta mota honen zailtasuna. Hitz bera erabilia ere, pertsona bakoitzak praktika desberdinak uler ditzake: gutxi asko beharturiko jarduera erregular bat, norberak aukeratu aisia mota bat, hala nola paseoa, edota azkartasun handiagoko jarduera fisikoa, hala nola senderismoa edo trekking-a.

Paseoaren moduko ibilketa da 15-75 urte bitarteko ia 18 milioi pertsonaren ohiko jarduera; inkestatzaileei erantzuterakoan, horietako heren bat baino gehiagok ez dute bat-batean edo beren baitarik aipatu, eta horrek pentsarazten digu praktika hori ibilketaren forma ez burutuetatik oso hurbil dagoela. Inkestatzaileak behin eta berriro galdetu ondoren agerturiko jarduera hori praktikatzen dutenen profila, ginerako ibiltarien antzeko samarra da: batez ere emakumeak, eskola gutxikoak eta diru sarrera apalekoak.

«Ibilketa generiko» horri «kirol ibilketa» bat kontrajartzen ahal zaio, dedikazio handiagoa, fisikoa eta denborazkoa, eskatzen duten izendapenak aipatuz, hala


nola senderismoa, mendiko senderismoa, trekking-a. Badira 3,2 milioi «kirol ibiltari», goian aipaturikoen profil desberdinekoak: emakumezkoak baino areago gizonezkoak, bitarteko lanbideen edo goi mailako intelektuaren artean ugariago, diru sarrera handiagokoak.

1. Grafikoa Emakumeen kirol praktika



2. Grafikoa Gizonen kirol praktika

Eremua: 15-75 urte bitarteko biztanleria – 2000ko uztaila
 Iturria: MJS/INSEP inkesta 2000ko uztaila



Gimnastika emakumezkoen, futbola eta petanka gizonzkoen

Oro har, kopuruaren aldetik, gizonzkoak nagusi dira kirolatan: 15 jardueratan gutxienez emakumeen bi halako dira kopuruari dagokionez; futbola eta rugby-a lehen buruan, non emakumeak apenas agertzen diren. Egia esan, kirol horiek berriki zabaldu zaizkie emakumei, 1996tik futbolaren kasuan. Aitzitik, emakumeak guztiz nagusi dira (%78 batez beste) hiru jarduerotan: gimnastika, dantza eta izotz gaineko patinajea. Gainerako jarduera fisikoak bitarikotzat har daitezke, nahiz eta horietan gizonak gehiengoa diren beti ere, salbu ibilketa, igeriketa eta irristaketari dagokionez; soilki boleibola da egiazki bitarikoa. Emakumeak presente diren kirolatan, lehiaketa eta kluba ez dira hainbeste agertzen (4. taula).

Kirolaren alorreko bereizkuntza hori argitzeko, maiz asko emakumeen kirol jardueraren aurka dauden historia eta estereotipo zein irudikatze kulturalak aipatu izan dira; horien arabera, gizonzkoen, boterearen, erlazio fisiko aski biolentoen kontua litzateke kirola. Orobat, kirol entrenamenduaren betebeharrak hartu behar dira kontuan: lanbide biziak, familia biziak eta kirola adostea, zalantzarik gabe, zailagoa gertatzen zaie emakumezkoen gizonzkoen baino.

«Ikasketa maila» edo «familiako sarrerak» faktoreek zerikusia bide dute kirol «pixka bat» edo «ezer ez» alternatibak, eta era garbiagoz emakumeentzat, baina kirol praktika sendoak, hein batean, faktore horietatik landa dagoela dirudi. Klub batean sartzea ohikoagoa gertatzen da ikasketa edo diru sarrera mailaz igotzen den neurrian; hori bereziki agerikoa da emakumeen kasuan.

4. Taula Emakumezkoen kirolak, gizonezkoen kirolak

Eremua: 15-75 urte bitarteko biztanleria – 2000ko uztaila

Jarduerak edo jarduera multzoak	Bilduriko oinarrizko kirolak	Jarduera batean ari direnen kopurua (miliatan)				
		Maiztasun guztiak	Horietatik, astean behin gutxienez (%) (1)	Emakumeak (%)	Batez besteko adina (urteak)	Klub edo elkarteko kideak (%)
BITARIKO KIROLAK (gutxienez heren bat emakume eta heren bat gizon)						
Ibilketa	Ibilketa, senderismoa, trekking-a	20933	57	57	45	20
Igeriketa - Bainua	Aisialdiko murgilketa barne	14548	28	52	34	29
Ziklismoa	Ziklismoa, mountain bike	12739	51	41	38	30
Footing-a	Footing-a, jogging	6631	61	35	33	40
Eskia	Eski alpinoa, iraupeneko eskia, trineoa	5314	13	43	35	41
Muskulazioa	Kulturismoa, muskulazioa, halterofilia	2599	72	35	32	51
Roller-skate-a	Roller-a, skate-a	1860	44	38	25	36
Badminton-a	Badminton-a, squash-a	1645	33	46	29	42
Eskubaloia		1352	59	33	24	50
Boleibola	Boleibola eta hondartzako boleibola	1238	39	50	36	49
ur-elurra	Itsas eskia, surf-a	1174	16	38	28	43
Ekitazioa		926	43	60	29	46
Atletismoa	Footing-a, jogging-a kanpoan	521	52	35	28	55
EMAKUMEZKOAK GEHIENGOA DIREN KIROLAK (gutxienez bi heren emakume)						
Gimnastika	Mantenimendu gimnasia, yoga	6052	82	79	41	49
Dantza		1057	83	80	31	54
Izotz gaineko patinajea		494	3	71	24	49
GIZONEZKOAK GEHIENGOA DIREN KIROLAK (gutxienez bi heren gizon)						
Bola-jokoak	Petanka, bola-jokoak, bowling	6113	18	27	43	30
Futbola		4633	54	8	27	51
Tenisa		3585	35	32	30	53
Arrantza		3047	37	16	44	13
Mahai tenisa		2338	28	30	32	37
Ehiza		1074	67	5	49	25
Bela	Wind-surf-a, bela, belaontziak	886	12	25	36	46
Arte martzialak	Judoa, karatea, aikidoa, taekwondo	784	78	26	28	71
Eskalada		663	20	29	28	50
Golf-a		602	38	22	37	57
Eskubaloia		581	56	31	23	64
Borroka kirolak		480	55	31	20	41
Rugby-a		426	52	6	27	73
Kirol mekanikoak		399	40	13	33	42
Arrauna – Kayak-a	Kanoe-kayak-a, arrauna, rafting-a	358	17	30	32	53

(1) Oporrez kanpoko praktiken gainean kalkulaturiko ehunekoa

Iturria: MJS/INSEP inkesta 2000ko uztaila

Irakurketa: 15–75 urte bitarteko 2,6 milioi pertsonak adierazten dutenez (beren baitarik edo behin berriro galdetu ondoren), muskulazioa egiten dute; kirolari horiek batez beste 32 urte dituzte. Horietatik %72k astean behin praktikatzen dute. Ehuneko 35 emakumeak dira eta %51 klub edo elkarte bateko kideak dira.

Emakume gutxi klub edo elkarteetan

Kirolaren praktikan gizonak baino gutxiago dira emakumeak, eta jardueraren bati ekiten diotenean, maiz askotan, klub eta elkarteetatik kanpo gertatzen da hori. Emakumeak maizenik ibili ohi diren kirolei erreparatzeak argitzen du egoera hau; ikus, adibidez, gimnastika, igeriketa edo ziklismoa.

Klub batean sartzeak (emaitzak ulertzeko, ikus 8. orria) ez du esan nahi kirol lizentzia baten jabe izatea. Klub edo elkarteren bateko kide direla diotenen hirutik bi, berez, federaturik daude eta batez beste 1,3 lizentziaren jabe dira.

5. Taula Kirolariak, klubaren barne edo klubetik kanpoko praktikaren arabera

Eremua: 15-75 urte bitarteko biztanleria – 2000ko uztaila

	GIZONAK		EMAKUMEAK	
	Kopurua milioitan	Batez besteko adina (urteak)	Kopurua milioitan	Batez besteko adina (urteak)
Jarduera fisikoak eta kirola egiten dituzte	19,1	39	17,6	40
Klub edo elkartearen barnean	6,0	35	3,9	37
Horietatik, lehiaketetan parte hartzen dute	4,2	32	1,3	28
Horietatik, ez dute lehiaketetan parte hartzen	1,8	43	2,6	41
Klub edo elkartetik kanpo	13,1	42	13,7	41
Horietatik, lehiaketetan parte hartzen dute	2,2	32	0,7	25
Horietatik, ez dute lehiaketetan parte hartzen	10,9	44	13,0	42
Ez dute jarduera fisikorik ez kirolik egiten	2,7	51	4,8	50


Iturria: MJS/INSEP inkesta 2000ko uztaila

Irakurketa: 15–75 urte bitarteko 6 milioi pertsonak jarduera fisikoak eta kirola egiten dituzte (zeinahi dela jarduera horien maiztasuna), klub edo elkarte bateko kideak direla. Horien erdiak 35 urte baino gutxiago ditu.

Klub edo elkarte bateko kide izateak ez dakar berekin lehiaketetan parte hartzea: klubeko kideak izanik, kirolean ari diren 100 pertsonetatik 55ek jardun ohi dute lehiaketetan. Horretan ere desberdintasunak ikus daitezke gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko jokabidean: klubetan, emakumeen herenak eta gizonen bi herenek lehiaketetan parte hartzen dute. Emakumeak, klubetan gizonetzkoak baino gutxiago izanik, lehiaketarien laurdena baizik ez dira, nahiz eta klubeko kideetatik %40 diren.

Pertsona bat kirol klub edo elkarte bateko kidea izan daiteke, eta jarduera fisikorik edo kirolik ez egitea. Hori da kideen %2ren kasua, 180.000 pertsona inguru, boluntarioak zalantzarik gabe. Gizonezkoen %37 eta emakumeen %19 klubaren bateko kideak dira eta erantzukizunak dituzte horren barnean.

3. Grafikoa Klub edo elkarte batean ari direnen proportzioa sexu eta adinaren arabera



Eremua: 15–75 urte bitarteko biztanleria
 Iturria: MJS/INSEP inkesta 2000ko uztaila

Lau lehiaketaritik hiru gizonezkoak dira

Lehiaketa hitzak biltzen dituen hiru kirol agerraldi motak estuki loturik daude (emaitzak ulertzeko, cf. 8. orria): kirol bilkuretan partaide diren pertsonetatik %65ek bai lehiaketa ofizialetan eta bai sailkapena duten kirol agerraldietan ere parte hartzen dute. Halakoek ohiko jarduera duten kirolariak erakartzen dituzte: hiru lehiaketa mota horietatik bitan parte hartzen duten pertsonen %90ek astean behin egiten dute kirola gutxienez .

Zortzi milioi pertsona baino zertxobait gehiagok, hau da, jarduera fisiko eta kirolen bat egiten dutela diotenen laurden bat baino zerbait gutxiagok, zeinahi dela jarduera horren maiztasuna, lehiaketetan parte hartzen dute (cf. 1. taula). Pertsona horien guztien artean, 2 milioi emakume besterik ez dago, 30 urte baino gutxiagoak, batez beste; gizonezko lehiaketariak, aldiz, 35 urte baino gehiagoak dira, batez beste.

Lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten 4,7 milioi pertsonak «kirolarien» batez bestekoa baino gaztexeagoak dira. Sailkapena duten kirol agerraldiek 4,4 milioi pertsona biltzen dituzte, eta bilkurek 6,7 milioi. Gizarte hierarkian gora joan ahala, kirola egiten dutenen arteko lehiaketarien kopurua gero eta handiagoa gertatzen da, eta hori are nabarmenagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino.

Klub edo elkarteetako kideak baino jende gehiago erakartzen du lehiaketak: lehiaketarien heren bat ez da klubetan aritzen. Klubeko kide egin daitezke lehiaketa baten denboran, edo klubeko ohiko jardueraren premia ez duten lehiaketa motetan parte hartu. Nolanahi ere, lehiaketariak maizago izaten dira klubeko kide: lehiaketari guztien %66, ez lehiaketariak %15 besterik ez direlarik.

Klubeko kideen maila eta lehiaketen izaera loturik daude: lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten pertsonen %82 eta sailkapena duten kirol agerraldietan parte hartzen dutenen hiru laurdenak klub edo elkarteren bateko kideak dira; eta aitzitik, kirol bilkuretara doazen pertsonak %43 besterik ez dira.

Bizitza guztirako kirolari?

Kirol jakin batzuetan, gutxi asko, bat-batean geratzen da jarduera 24 urteetara iritsiz gero, horietarikoak dira: borroka kirolak (%82, 25 urtetik beherakoak), saskibaloia (%72), eskubaloia (%68) eta, neurri apalagoan, atletismoa eta tenisa. Beste batzuk, ordea, gazte helduen artean luzatzen dira, horietarikoak dira: futbola (%78, 35 urtetik beherakoak), rugby-a (%89), irristaketa (%74), arte martzialak (%75), roller-a (%84), mahai tenisa (%64).

Modu orokorragoan, jarduera fisiko eta kirolen praktika jaitsi egiten da adinean aurrera joan ahala, batez ere jarduera horretan noizean behin aritzen zirentzat; adinak, aldiz, ez du praktiko sendoa edo dedikazio handikoa hainbeste aldatzen, eta hori egia da bereziki emakumeen kasuan. Hein batean, emakumeen jardueren izaera izan daiteke horren azalpena, baina baita bizi-itxaropena ere: 82 urte emakumezkoentzat eta 75 urte gizonezkoentzat, gaurko Frantzian.

Patrick Mignon (INSEP - Laboratoire de sociologie du sport)

Guy Truchot (MJS - Mission statistique)

Oharra: Goi mailako kirolaria, dagokion kirol federazioak, berak lorturiko emaitzen arabera, Frantziako Taldeetan sartzen duen kirolaria da, nazioarteko lehiaketa handietan parte har dezan (Joko Olinpikoak, Munduko Txapelketak eta Europako Txapelketak). Praktikatzan duen kirol modalitatea goi mailakotzat hartua izan behar du Goi Mailako Kirol Batzorde Nazionalak. Goi mailako kirolarien zerrendan ezartzea Gazteria eta Kirolak ministerioak onetsirik dago.

Bibliografia

- ✓ Wladimir Andreff et Jean-François Nys
Economie du sport
Que Sais-je – PUF
4. argitaraldia – 2001

- ✓ Jean-François Bourg et Jean-Jacques Gouguet
Economie du sport
Repères – édition La Découverte – 2001

- ✓ «Jeunes et pratique sportive»
Rapport au ministère de la Jeunesse et des Sports
M. Choquet et H. Bourdessol (INSERM), Ph. Arvers (CRSSA), Ph. Guilbert (CFES), Ch. de Peretti (INRP)
INJEP – 2001 Urtarrila

- ✓ Christian Pociello
Les Cultures Sportives
PUF – 1999

- ✓ Assises nationales Femmes et Sport
29 et 30 mai 1999 – Actes
Ministères de la Jeunesse et des Sports

- ✓ «Historique de la participation des femmes aux Jeux Olympiques modernes et aux grandes compétitions internationales» A. Leclercq – CNOSF pour les Assises départementales «Femmes et Sports» — Rodez 20 1999 martxo

- ✓ Olivier Donnat
Les pratiques culturelles des français
La Documentation française 1998

- ✓ P. Irlinger, C. Louveau, M. Metoudi
Les pratiques sportives des français
Laboratoire de sociologie, INSEP
Paris – 1987 abendua

EMAITZAK ULERTZEKO

«Kirol praktikak 2000» inkesta

Frantziako Gazteria eta Kirolak Ministerioa eta Kirol eta Heziketa Fisikoaren Institutu Nazionala

15-75 urte bitarteko pertsonen eremu mugatua, baina kirol praktiken kontzeptu zabala hartzen duena

Inkesta hau 2000ko uztailean egin zen 6.526 pertsonen osaturiko lagin baten gainean, zeinak Frantzia metropolitarran eta DOMetan (CSA Institutua) finkaturiko 15–75 urte bitarteko biztanleria ordezkatzen zuen. Funtsean, inkestaren helburuak dira: kirol jarduera moldeak aztertzea, erakunde barneko praktikatik (kirol klubeko lizentzia, bestelako egituretan) praktika berrietaraino (famiolarekin batera, kaleko kirola, klub pribatua, etab.), eta praktika tasak ebaluatzea diziplina multzo handien arabera. Zehatz-mehaz galdetu zaio kirolari bakoitzari buruturiko jarduera desberdinei buruz, gehienez hiru. Galde sortak hainbat praktika-modalitate eta kide izateko moldeak hartzen ditu kontuan.

Hemen lorturiko emaitzak ezin dira bestelako iturburuetatik datozenekin zuzenki alderatu

Familien bizi baldintzei buruzko inkesta iraunkorrak (INSE) maiatzeko alean, «osasun arazoak» atalean, ondoko galdera hau egiten du: *Kirol jardueraren batean aritzen zara?* Eta urrikoan, «aisia» atalean, beste hau: *Kirol jardueraren batean aritu zara azkeneko hamabi urteetan?* Alde batetik, izendatzeko era hori «jarduera fisiko eta kirolak» baino murriztaileagoa da. Bestalde, MJS inkestan berriro galdetzen zaie hasieran ez jarduera fisikorik ez kirolik egiten dutela dioten pertsonen.

Kultura eta Komunikazioa ministerioak 1997an kultura jarduerari buruz eginiko inkestak kirol jarduerari buruzko galdera bat dakar, aisialdiari buruzko galderen barnean, baina berriro horretaz galdetu gabe. 15 urte eta gehiagoko biztanleria da kontuan harturiko eremua .

Frantsesen kirol jardueri buruz INSEPek 1985ean buruturiko inkesta 12-74 urte bitarteko biztanleria ordezkaten zuten 3.000 pertsonen osaturiko laginari zegokion; lagin horrek, gazteagoa izanik, a priori 2000ko uztaileko inkestarena baino kirolzaleago agertu behar zuen.

Kirol jarduera (inkesta honen zentzuan)

«Praktika» hitza erabiltzen da edozein dela adierazitako jarduera fisiko eta kirolen praktikaren maiztasuna.

Testuan bereizi egiten dira noizean behingo praktika (astean behin baino gutxiago), praktika erregularra (astean behin), praktika jarraikia (astean behin gutxienez) eta praktika bizia (astean behin baino gehiagotan).

Lehiaketa (inkesta honen zentzuan)

Lehiaketa hitzak honako hauek hartzen ditu:

- Kirol federazioen esparruan antolaturiko lehiaketa ofizialak, lizentzia behar.
- Edozein antolatzaile motak eraturiko kirol agerraldiak, batzuetan lizentzia behar, bestetan ez. Horien emaitzek ez dakarte titulu federalik. Adibidez: maratoiak, tenis torneoak, etab.
- Berez edo elkarteek –kirol mugimenduaren barnean izan edo ez– antolaturiko bilkurak, hala nola roller bilkurak, etab.

Klub edo elkarte batekoa izatea (inkestaren zentzuan)

Hona planteaturiko galdera: «Klub edo elkarteren bateko kidea zara?». Beraz, «klub» hitzak, bakarrik erabilita ere, klub edo elkarte bat adierazten du.

Klub edo elkarte batekoa izateak ez dakar berekin federazio batek luzaturiko lizentzia bat. Eta alderantziz, galdekaturiko pertsonak lizentzia baten jabe izan daitezke, baina kirol klub edo elkarte batekoak izan gabe.

<p>STAT-Info, Gazteria eta Kirolak ministerioaren Mission statistique-ko buletina. Argitalpen zuzendaria: Philippe Forstmann, Pertsonal eta administrazio burua. Erredakzio burua: Brigitte Belloc, Mission statistique-ko burua - Maketa: Myriam Claval. Webgunea: www.jeunesse-sports.gouv.fr Helbidea administratiboa: 78 rue Olivier de Serres - 75739 PARIS CEDEX 15 Helbide elektronikoa: myriam.claval@jeunesse-sports.gouv.fr - Tel.: 01 40 45 92 96</p>
